# Grezia eta Erromako erlijioa

Erromatarren antzinako erlijioa oso xumea zen eta familia bakoitzak bere jainko bereziak zituen: **maneak** —hildakoen anima erratuak— eta **lareak** —etxearen jainko babesleak—. Erlijio xume honek ez zuen eskatzen inolako sineskizunik, ez zuen dogmarik. Opari eta eskaintzez saiatzen zen familia jainkoaren babesa eskuratzen.

Erroma Greziarekin harremanetan jarri zenean, Greziako mitologiako jainkoak onartu eta latindu egin zituzten haien izenak. Kulturik nagusiena jaso zutenak: Jupiter, Minerva eta Juno.

Saiatu ziren enperatore batzuk enperatorearen kultua bultzatzen ere, baina erakarmen txikia zuen Erromako herrian zeinek ekialdeko erlijio misteriotsuetarako joera handiagoa agertzen baitzuen.

1. Osatu koadroa esanez zein Erromako jainko dagokion Greziako jainko bakoitzari.

| Izen grekoa | Izen latinoa | Ikurra | Nor zen | Aurkezteko era |
|---|---|---|---|---|
| ZEUS | | Arranoa eta tximista | Jainkoen aita | Agure bizarduna tronuan eserita |
| HERA | | Mingrana | Zeusen emaztea | Emakumea koraza jantzita |
| ARES | | Lantza, ezpata eta zuziak | Jainko gudaria | Gudarisendoa buruoskol eta korazarekin |
| HEFAISTOS | | Mailua eta kurrikak | Suaren jainkoa | Gazte herren eta itsusia |
| ATENEA | | Hontz zuria | Jakituriaren jainkoa | Gazte ederra arma, buruoskol, lantza eta babeskiarekin |
| HERMES | | Kaduzeoa | Jainkoen mezulari, merkataritza | Gaztea oinetan hegoak dituela |
| AFRODITA | | Maskorra | Maitasuna eta ugalmena | Emakume gazte ederra biluzik |
| POSEIDON | | Hiruhortza | Itsaso eta iturrien jainkoa | Agure bizarduna |
| ARTEMISA | | Oreina | Iturri eta ibaien jainkoa | Gazte ederra buiraka eta geziekin |
| APOLO | | Lira eta ereinotza | Artea eta letrak | Edertasun maskulinoaren eredua |




Neptuno - Minerva - Júpiter - Apolo - Venus - Diana - Mercurio - Juno - Vulcano - Marte